

«Itxialdiak nire
burutik gauza asko
kendu ditu,
gorrotatzeko
denbora gutxiago
daukat orain»

LA FURIA RAP ABESLARIA

Bira berriko lehen kontzertua eta azkena
eman zuen Bruselan, martxoaren 8an.
Itxialdian leihoak zabaltu ditu sare
sozialetan; kontzertuak, topaketak eta
ahalduntze feministarako rap tailerrak.


Amagoia Mujika Telleria

Alarma egoe-
rak oso une
berezian ha-
rrapatu du La
Furia rap
abeslari nafa-
rra (Nerea Loron, Cascante,
1983). Martxoaren 8an hasi
zuen bira Bruselan, joan den
uztailetik agertokietatik kan-
po egon ondoren. Abuztuan
erditu zen eta bere azken kont-
zertua zortzi hilabeteko haur-
dun zela eman zuen. «Erditze-
ko eta hazkuntzarako geratzea
erabaki nuen hilabete batzue-
tan». Hartara, Bruselan eman
zuen birako lehen kontzertua
eta, oraingoz, azkena.

Bere azken lana “Pecadora
Vol.1” izenekoa da, bi zatitan

emateko asmoa duelako.
Oraingoz hiru abesti dauzka
osatuak, hurrengo diskoaren
parte izango direnak. «Disko
osoa batera eman beharrean,
pixkanaka ematea erabaki du-
gu». Eta bere azken lana aur-
kezteko grinatsu zegoela, ola-
tura igotzeko gogoz zegoela,
jaiitsi eta etxera, itxialdira. Ha-
la ere, etxetik leihoak zabaltu
ditu, Instagramen lagun di-
tuen eta sonatuak diren ema-
kumeeekin elkarrizketak anto-
latu ditu eta ahalduntze
feministarako rap ikastaroak
ematen ari da *online*.

**Justu bira berria hastera
zihoazela, erabat geratu be-
harra. Nola daramazu?**



Argazkiak: Javier PORTILLO

Ez da erraza egoera hau emo-
zionalki kudeatzea. Baina au-
rretik zure buruari begiratzeko
eta zure burua zaintzeko saio-
ak egin badituzu, erremintak
dituzu egoera berri honetarako
ere. Finean, hau derrigorrez eta
erabat geratu beharra izan da,
baina geratzea mesedegarri
gerta daiteke norbere buruari

begiratzeko baliatzen bada.
Hausturak daudenean beti ire-
kitzen dira bide berriak, nahiz
eta batzuetan ez ditugun ikus-
ten. Oso argi egoten saiatzen
ari naiz, bide berri horiek ikusi
ahal izateko.

Egia da egoera korapilatsua
dela, egoera ekonomikoa ahu-
lagoa dela, zortzi hilabeteko

haurtxo bat dagoela etxean
eta batzuetan lainotu egiten
dela panorama.

**Lainoak eta argiak, denetarik
dago itxialdian, ezta?**

Bai, nik fase desberdinak pasa-
tu ditut. Une batean raparen
mundua aparte utzi beharko
nuela pentsatu nuen. Ni gizarte

hezitzailea naiz, berdintasunean aditua, haur hezkuntzako ikasketak ere baditut... eta pentsatu nuen lana bilatzen hastea nire ikasketen inguruan. Nik ez dakit lanik egin gabe egoten eta, asko hausnartu gabe, lana topatzen hasteko behar bat sentitu nuen. Beti egiten, egiten, egiten ari naizela sentitu behar dut eta erotuta bezala hasi nintzen lana topatzen. Baina hausnarketarako tartea hartu nuenean, pixka bat gelditu eta hausnartzen hasi nintzenean, konturatu nintzen akaso niretzat oraintxe ez dela aukerarik onena gizarte langileen sektorean lanean hastea. Ordutegi luzeak dira, asteburuak lanean... eta haurtxo bat daukat etxean. Ni beti ekintzan aritu izan naiz, egiten, eta orain beste gauza batzuk ikasten ari naiz; geratu eta pentsatzen.

Koronabirusak bere partea izango du «geratu eta pentsatu» zure ikasketa horretan. Baina etxean dabilen txikiak ere badauka berea, ezta?

Bai, parte handi-handia. Amatasunagatik ez balitz, oraintxe ez dakit non egongo nintzateke lanean egunean ordu mordo batez. Nik sinisten dudana feminismoak esaten du bizitza erdigunean jarri behar dela eta niretzat amatasuna bizitza erdigunean jartzeko modua bat izan da. Hau da garrantzitsua, hau zaindu egin behar da eta ondo zaindu behar da. Horregatik, beste modua batzuk bilatzera jo dut, beste aukera batzuk aztertzeraz.

Osasun alarma honetan inoiz baino garbiago ikusi da bizitza erdigunean jartzeko beharra. Honetatik lehen baino hobeto aterako garela sinisten duten baikorren taldekoa al zara?

Hastea, jende asko asko ez da hemendik aterako, hori ez genuke ahaztu behar. Arazoak, gaixotasunak, geldialdiak... gauzak aldatzeko aukerak direla uste dut. Baina, era berean, jende askok gauzak ez dituela aldatu nahi uste dut. Kontua ez da gauzak aldatzen badakigun edo ez dakigun, zuzenean bada jende asko ez zaiona interesatzen gauzak aldatzea eta botere gehien duen jendea da hori. Egia da gure burua birpentsatzeko aukera dugula: bizi garen modua, kontsumitzen dugun modua, harremantzen garen modua... Bai, aukera bat dela pentsatzen dut, baina ez dakit modua kolektiboan aukera hori baliatuko dugun. Baina maila indibidualean jende asko aldatu egingo dela uste dut, eta, beste asko, ez.

Hasturak, muturreko egoerak, kolpeek aldatuta baterako atea ireki dezaketela diozu. Zure bizitzan konstante bat izan da hori?

Bai, nire bizitzan eta orokorrean uste dut. Nire bizitzan konstante bat izan da nire haserrearen jatorria bilatzen saiatu naizela beti. Nire haserre handien eta sakonenen kasuan urteak eta terapia kostatu zait hori egitea. Baina uste dut gaia hori dela; minak, egonezina eta haserreak nondik datozen jakitea. Nire kasuan haserre horiek sekulako indarra daukate, mina amorru bihurtzen da eta amorrua niretzat sekulako energia da. Baina amorrua ez da habitatzeko toki egokia. Amorraren indarrarekin gauza asko egin ditzaket, baina gero amorru horren jatorria topatu behar dut samurtzeko, sendatzeko eta ondo egon ahal izateko. Ez dut haserre bizi nahi.



«Raparen bitartez politikoki zuzenak ez diren mezuak modu argian eta irmoan esan ahal izan ditut oholza baten gainean»

«Amorraren indarrarekin gauza asko egin ditzaket, baina gero amorru horren jatorria topatu behar dut samurtzeko, sendatzeko eta ondo egon ahal izateko. Ez dut haserre bizi nahi»

Etiketarik beste leihok batzuk ireki dituzu. Ahalduz feministarako rap tailerrak eskaintzen dituzue sarean.

Bai. Nire lanaren parte bat hori da; ahalduz feministarako rap tailerrak eskaintzen ditut herri desberdinetan; gaztelekuetan, udaletxetako berdintasun sailen bitartez, normalean gaztetxoentzat...

Urte batzuk daramatzat horretan. Geratu eta barrura be-

gira jartzeko prozesu horretan, nire buruari galdetu nion ea zeintzuk ziren nire indargutxoak, zer eskaini nezakeen, eta konturatu nintzen normalean aurrez aurre eskaintzen ditudan rap tailerrak eskaintzeko aukera nuela. Egia esan, ez dakit nola ez zitzaidan lehenago bururatu.

Rap tailer horietan edonork eman dezake izena, edozein tokian egonda ere. Tailerra diseinatu nuen eta sarean eskaini. Eta egia esan harrituta nago jasotako erantzunarekin. Toki guztietako eta adin guztietako jendeak idatzi dit, profil oso zabalera iritsi naiz eta oso-oso pozik nago.

Adin desberdinetako taldeak osatu dituzue.

Bai, uste dut haurren talde bat, nerabeen beste bat eta helduena osatuko ditudala. Egia esan, esperimentu txiki bat izango da. Tailerretako edukia aurretik oso landuta daude, baina esperimentua izango da horri forma ematea.

Bi aukera daude; lau orduko tailer teorikoa edota sei orduko aurreragoko tailer teorikoa eta praktikoa. Saio gehienak taldeak egiten dira eta batzuk bakarka eskaintzen ditut. Normalean astebeteko tailerrak dira, astelehenetik ostiralera, egunean ordubete.

Rapa ahalduz feministarako erreminta modura. Zuretzat horrela izan al da?

Zalantzarik gabe. Ongi etorria ez nintzen toki batean nire ahotsa jartzea izan da. Emakumeen ahotsa isilarazia izan da historikoki eta niretzat rapa bozgorailu bat izan da, isilarazitako ahots batentzat bozgorailua. Rapa ahotsik gabekoen ahotsa dela esaten da. Bere jatorria hori da. Eta nik sustrai

horretatik ulertzen dut hip-hoparen kultura.

Raparen bitartez politikoki zuzenak ez diren mezuak modu argian eta irmoan esan ahal izan ditut oholza baten gainean.

Zure haserre eta minei ahotsa jartzeko modua bat al da?

Bai, zalantzarik gabe. Gazteagoa zarenean zure arazoak zureak bakarrik direla pentsatzen duzu eta batzuetan partekatzeak berak lotsa ematen dizu, sistemak lan handia egiten baitu emakumeen minak erruduntasunarekin bizi daitezen. Baina arazo horiek beste jende baten aurrean jartzen dituzue konturatzen zara gehiago daukatela kolektibotik indibidualetik baino eta oinarrian emakume guztiok sufritzen ditugula, intentsitate eta errealitate desberdinez. Hori partekatzeak efektu katartikoa dauka. Nik beti esaten dut niretzat kontzertuak akelarreak bezala direla, hor gainean jartzen ditut nire minak eta kexak eta publikoak horiek jaso eta beste forma batekin bueltatzen dizkit. Eta horrek sendatu egiten du.

Rap tailerretan hori gertatzen da? Minak ahots gora esaten dira?

Tira, tailerrak ordu batzuk baino ez dira eta beti ez da hori lortzen. Baina niretzat tailerrak prozesu baten parte dira. Ahalduz feminista ez da sei orduan lortzen den zerbait, prozesu horrek denbora behar du.

Tailerretan, barrura begira jarri baino lehen –batzuetan horrek beldurra ematen du–, kanpora begira jartzen gara; beste emakume batzuek esaten dutena eta sentitzen dutena ikusten dugu. Hortxe erreferenteak izatearen garrantzia.



Besteek sentitzen, pentsatzen edota esaten dutenak norbera-rena legitimatzen du. “Niri ere gertatzen zait”, pentsatzen duzu. Beraz, tailerretan hasieran erreferente aukera zabala eskaintzen dugu eta rap feministaren historiaren irakurketa bat ere egiten dugu.

Interesgarria izango da aste-beteko prozesua ikustea.

Bai, zoragarria da. Baina prozesu hori norberak egiten du, nik pixka bat lagundu baino ez dut egiten. Lehen egunean jende askok esaten du “nik ez dut rapeatuko, entzutera bakarrik etorri naiz”, baina azkenean denek rapeatzen dute. Oso prozesu ederra da eta hor dago ahalduntzea. Zerbaitetarako gai ez zarela pentsatzen hasi eta oso gai zarela ikusten bukatu. Lehendik ere bazinen gai, baina ez zenekien. Hori da ahalduntzea.

Nola irudikatzen duzu etorkizuna? Zure kontzertu bat segurtasun espazioekin... dagoeneko imajinatu duzu egoera hori?

Egia esan ez dut ariketa hori egin. Baina egia da honen guztiaren aurretik ez nuela irudikatzen kontzertuak egiteko nire modua ez zen beste modurik. Eta itxialdian *online* kontzertuak eman ditut, eta aurretik sekula ez nuen horrelakorik imajinatuko. Asteazkenetan eta ostiraletan zuzeneko topaketak egiten ari naiz sarean interesgarriak iruditzen zaizkidan edota lagunak ditudan emakumeekin: Ana Tijoux, Rebeka Lane, Itziar Ituño, Leticia Dolera, Irantzu Varela... Alegia, aurretik inoiz pentsatu ez nituen gauzak egin ditut, egiteko moduei buelta eman diet eta auskalo hemendik aurrera zer egingo dudana.

Baina nire ustez sareetan kontzertuak dohain ematearen formula agortuta dago. Lan handia egin dugu gure lanari balioa emateko eta itxialdian uste dut gure aukeren gainetik eskaini ditugula kontzertuak *online* dohain. Hala ere, ez dut asko pentsatzen gauza horietan. Oraintxe aste honetan eta hurrengoan zer egingo dudana pentsatzen dut, ez urrutirago. Niretzat modu osasuntsuena hori da, bestela antsietatea sortzen zait.

Kulturak behar duen tokiaz eta kultura kontsumitzeko moduez hausnarketa beharko litzateke, ezta?

Bai. Norbaiten lanari balioa emateko modua bere lanari duintasuna ematea da; eskubideak, neurriko ordainketak, baldintza egokiak... Horri buruz asko pentsatu dut orain, txaloen garaian. Badakit jen-

de askok borondate onenarekin egiten duela txalo arratsaldero, osasun langileei eta beste langile batzuei bultzada emateko asmo zintzoarekin. Baina heroiak sortzen ditugunean, norbait idolatratzen dugunean, ez gara benetan duen balioa ematen ari. Balioa emateko modua eskubideak ez murriztea eta bere lana ekonomikoki ere modu duinean errekonozitzea da nire ustez. Osasun langileen eta kulturako zenbait sortzaileen kasuan arrisku hori ikusten ari naiz, berez ez dagoen tokian kokatuak izaten ari dira eta hori ez da onuragarria. Duintasuna da lanordua ez bikoiztu behar izatea, zure lana aitortua izatea, lan baldintza duinak izatea... Horri buruz pentsatu beharko genuke. Heroien diskurtso hori ez dut maite. Ez dira heroiak, eskubideak eta lan bal-

dintza duinak behar dituzten langileak dira.

Egoera honetatik abesti mordo sortuko zaizu.

Bai, seguru baietz. Dagoeneko ari naiz, baina sortzen ari zaizkidan letra gehienak ez dira norabide horretakoak. Kolaborazioak egiten ari naiz lagunekin; munduko emakumezko rap abeslariarekin osatutako disko batean parte hartuko dut, Kanadako lagun rapera batekin kolaborazio bat, Irarekin abesti bat atera dut aste honetan bertan... Baina, harrigarria bada ere, egoera honetan sortzen zaizkidan letrek nirekiko maitasuna adierazten dute. Maite dudana jendearen oso ondoan sentitzen naiz egoera berezi honetan. Ez dakit, itxialdiak nire burutik gauza asko kendu ditu, gorrotatzeko denbora gutxiago daukat orain. Niretzat amorrutik idaztea erraza da, baina normalean azalean dudaretik idazten dut eta une honetan azalean maitasuna daukat.

La Furia eta Iraren arteko abestiak grina eta amorrua izango ote du.

Abestiak “A bocajarro” izena du. Pentsa, abestia ekoiztu zizunak La Furia eta Ira elkartuta beste gauza bat espero zuela esan zidan. Askok bortitzagoa zen zerbait espero omen zuen, baina poesiara hurbildu gara eta ia maitasun abesti bat ateratu zaigu [barreak].

Aspalditik ezagutzen dugu elkar, Madrilen okupa etxe batean ezagutu genuen elkar feminismoa modan ez zegoen garaian, pentsa. Finean, La Furiaren barruan maitasun izugarria dago eta horregatik haserretzen naiz hainbeste. Baina haserre hori maitasunak mugitzen du.